

Aurten ere sagarraren prezioa 34 pezetakoa izango da, joan den urtean bezala

Abuztuko beroagatik sagar asko erori denez, **iaz baino produkzio txikiagoa izango da**

Urriaren 2an zabalduko da ofizialki sagardotarako sagarraren kanpainia. Kontuan hartu beharra dago urtero bezala iaz ere sagardogileak sindikatuko ordezkariekin bildu zirela sagarraren prezioa adosteko. Bileran bi urtetarako prezioa adostu zuten. Hori dela eta, aurten ere iazko prezioan salduko da sagardotarako sagarra: kiloa 34 pezetatan hain zuzen. Abuztuan egindako beroagatik sagar kopuru garrantzitsua lurrera eroria da dagoeneko eta produkzioa iazkoa baino txikixeagoa izatea espero da.

Sagardogileek eta sindikatuak iaz egindako bileraren ondorioz, sagardotarako sagarraren prezioa bi urterako finkatzea lortu zen. Hori dela eta, aurten ere kiloa 34 pezetatan erosiko dute sagardogileek, sagardotegian jarrita. Hau da, baserritarrek sagardotegiraino sagarrak eramatearen truke ordainduko da prezio hori. Horixe izan zen iazko irailean egindako bileretan lortutako akordioa.

Iaz hitzartutakoaren arabera, urriko lehen astelehenetik aurrera hasiko dira aurten ere sagardotegiak sagarrok jasotzen, urriaren 2an hain zuzen. 34 pezetatan ordainduko den sagarrak, gaine-

ra, sagar garbia beharko du izan, ondua eta ustelik gabea.

Horixe izan zen iaz adostutakoa eta aurtengo kanpainarako indarrean egongo da erabaki hori. Era guztietara, zizarraren inguruan deus ez zen adostu.

Erabakia 1999ko irailaren 16an hartu zen Zubietan, Sagardogile elkarte, Taldea, EHNE eta Fruitelen arteko bileraren ondorioz. Prezioak bi urterako ezartzea EHNEren proposamena izan zen eta bileran onartu egin zen. Era guztietara, produktore bakoitzaren trebetasunaren esku gelditzen da prezio hobea lortzea, sagar ona badauka.

Udako beroaren ondorioz, Gipuzkoan aurtengo uzta ez da hain handia izango. Asturias eta Galizia aldean ere oso sagar gutxi egon omen da aurten.



Prezioak bi urterako ezarri ziren iazko bileretan.

Iaz baino sagar gutxixeago

Aurtengo uztan oso sagar gutxi izango direla adierazi dute Gipuzkoako baserritarrek. Badirudi sagar kopurua iazkoa baino txikixeagoa izango dela. Garaiz etorri omen da sagarra eta dagoeneko lurrean sagar dexente badago jada, usteltzen. Itxura denez, Gipuzkoa ez da sagar gutxi izango dituen leku bakarra. Galizia eta Asturias aldean ere oso sagar gutxi egon da aurten.

Aurten ez dugu haize handirik izan, ez eta euri larrik ere. Bero handia egin du abuztuan eta horren ondorioz erori dira sagarrak zuhaitzetatik. Iaz uzta hobea izan

zen, batez ere Beterri eta Kostan.

Sektorearen antolaketa

EHNE sindikatuak sektorea antolatu beharra dagoela uste du. Dena dela, gai honi ez zaio behar den moduan heldu eta oraindik finkatu gabe dago gai hau. Era guztietara, sindikatuak eta sagardogileek serioski heldu beharko genioke gai honi sektorea benetan antolatu nahi badugu.

Produktore zein transformazileek sektorearen etorkizuna ziurtatzeko apustua egin beharra dute, sindikatuaren iritziz. Horrela lor daiteke produkzio alternatibo bihurtzea.